

KOSTUEN EGITURA

Enpresa guztiek bezala kostu batzuk ditu produktu bat eskaintzeak eta produktu hori sortzeak. Horretarako, diru kantitate bat inbertitu behar da eta noski diru hau guk jarri behar dugu edo mailegu baten laguntzarekin. Gure produktua kalitatea da ezaugarriak esanguratsuena, primerako materialekin sortua dagoelako.

Hauek izango dira egin beharreko inbertsioak eta kostu finkoak:

- Alokairu bat ordaindu behar dugu, baina UGGASA enpresak uztean, prezioa asko jaitsi da eta 25€ izango dira hilabeteetan; wifia, ordenagailua, elektrizitatea edukiko dugu prezio baxuan.
- Rural kutxa mailegu bat eskatu dugu enpresa aurrera eramateko eta kostu batzuk ordaindu ahal izateko. 3000€ eskatu ditugu eta hilean %3,2 a izango da berriro eman beharko diegun gehigarria.
- Horrez gain, ezbehar bat gertatzen bada, gure enpresaren seguruak babestuko digu, horregatik seguruen hainbat enprekin egon gara hitz egiten, enpresa seguru bat kontratatzeke. Zurich enpresak oso prezio ona eskaini digu eta gauza asko babesten ditu. 300 euro urtean bakarrik izango lirateke.




Kostu aldagarriak:

- Esan dugun bezala, furgoneta bat dugu eta honek diru asko aurrezten laguntzen digu, baina furgoneta zaharra da, horregatik, garraiatzerako momentuan, diru gehiago utziko dugu gasolinan. 9l/100km kontsumitzen ditu eta dieselak 1,2€ balio ditu, hau da, 10,8€/ 100km izango lirateke.
- Kontsignaren diseinua sortzean, materiala beharko dugu hau fisikoki sortzeko eta muntaia guztia egiteko. Kontsignaren pieza elektronikoak ere erosi behar ditugu eta hauek kostu handia edukiko dute. Horregatik, 2000€-ko inbertsioa egitea pentsatu dugu hasieran.
- Enpresa sortutakoan ez dugu inorrek ezagutuko horregatik, gure bezero tasa igo



dadin publizitateak egingo ditugu. Lehenengo, Diario Vasco egunkarian idatziko dugu gure enpresari buruzko artikulu bat, bertan enpresaren informazio guztia jarriko dugu jendearen atentzioa deitzeko. 500€ iragarkietan inbertituko dugu.

Hau guztia batuta, kalkulatu dugu lehenengo hilean 500€-ko irabaziak edukiko ditugula bakoitzak. Beste irabaziak inbertsio bezala ezartzea pentsatu dugulako eta horrela diru estra bat edukiko dugulako badaezpada. Ez da diru asko izango baina nahikoa izango da proiektuarekin aurrera jarraitzeko.



E.E.